

INFLAZIOA

Kontsumoko prezioak merkatu dira urte arteko tasan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Apirilean, EAEko KPI indizea $-0,5$ era jaitsi zen urte arteko tasan, konfinamenduak sortu duen egoerak baldintzatuta. INEk azaldu duenez, alarma egoera deklaratu izanak eragin du ondasun eta zerbitzuen zati handi bat eskuragai ez egotea, edo soilik webgunearen bidez eskuratu zitezkeen. Horri gehitu behar zaio prezioen bilketa telematiko egin zela, eta horrekin batera prezio asko zenbatetsi egin behar izan zirela.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,5	-0,5
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	1,1	0,8
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,8	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,4	0,1
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	1,3	0,5
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-7,5	-1,3
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	6,6	0,5
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-16,7	-1,8


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Beste behin ere, erregaien prezioak izan ziren inflazioaren beherakada horren erantzule nagusiak, nahiz eta petrolioaren merkatuak bere krisi txikia honezkero atzean utzi duela dirudien. Hori horrela, garraioa eta etxebizitza taldeek hilabete-an erregistratu zen prezioen jaitsiera ia osoa eragin zuten. Zehazkiago azalduta, garraioaren aldakuntza tasa lau puntu eta bi hamarren jaitsi zen, eta $-6,7\%$ an geratu zen, ibilgailu pribatua oso gutxi erabili delako konfinamendu horretan

eta, orobat, salgaien garraioa funtsezko zerbitzuetara mugatuta egon delako. Era berean, etxebizitza-taldea $-4,7\%$ tik $-6,2\%$ ra igaro zen, elektrizitatearen eta berokuntzarako erregaiaren prezioetan merkatzeak erregistratu ondoren. Bestalde, janariak eta alkoholik gabeko edariak inflazioaren beherakada murriztu zuten, multzo hori $3,9\%$ garestitu zelako, 2013ko erdialdetik izandako erregistrorik handiena delarik.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte ateko aldakuntza tasa. 2020ko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,5	-0,7	0,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,9	4,0	3,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,3	0,7	3,2
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	-0,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-6,2	-6,6	-1,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,4	0,8
Osasuna	0,4	0,2	0,9
Garraioa	-6,7	-6,8	-3,6
Komunikazioak	0,7	0,7	-1,4
Aisia eta kultura	-0,2	-0,1	0,4
Hezkuntza	1,4	0,9	0,3
Jatetxeak eta hotelak	1,5	1,7	1,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,9	1,4	1,6

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

